

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” - 2022



AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- JARDUERAK

3.1.- JARDUERAK GARATZEKO OINARRIAK

3.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

3.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

4. KRONOGRAMA

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

Eranskinak

- I. **Eranskina:** Gurasoei banatuko zaien materiala
- II. **Eranskina:** HASI HEZI aldizkariaren harpidetzarako gutuna/fitxa
- III. **Eranskina:** Eskola Agendaren erredua (2021-2022)
- IV. **Eranskina:** EPK kanpainarako euskarria

1.-SARRERA

Egitasmo orokor bat dugu “Familiabidezko jarraipena” dinamizazio proiektua eta horren barruan txertatzen ditugu zenbait azpiegitasmo. Aurtengoan aurrekontu murriztagoen menpe, esparru honetan ekiteari ezin utzi, baina ezin horren zabal jardun.

Ohizko azpi egitasmoei eutsiko zaie eta, askotan, Euskara Zerbitzuak bereak dituen baliabieekin burutu beharko. Hona hemen familiabidezko jarraipenerako egitasmo orokor honen baitan 2019an izango diren jarduerak:

- **Jaioberrien gurasoei materiala banatzea.**- Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainetan parte hartuko dugu (adur zapiak, poltsak, eman giltza, emaiouzu bizia, Ku-ku argitalpena), daukagun materiala osatzeko.
- Aurtengoan ere, 2016an martxan jarritako eskaintza berri bati eutsiko diogu: HIK HASI erakundearen **Hazi Hezi aldizkariaren harpidetza** ikasle matrikulatu berrien gurasoentzat. Honakoa burutzeko irakaskuntza zentroen bitartekaritza lantzen da.
- **Eskola Agenda 2022-2023.**- 2019tik ona Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendan ere parte hartuko dugu 2022an, aintzat hartuta hezkuntzako agenteen zirkulu osoak duela lotura “agendaren” dinamikarekin (irakasleak, ikasleak, gurasoak) eta irakaskuntza zentroetan oso estimatua dela material hau.
- **“Euskaraz oparitu” kanpaina.**- Hau ere Alkarbidek koordinatzen du; guk ez dugu katalogoa banatzen, baina kanpainarekin bat eginda, geure baliabideekin garatu izan dugu azken urteetan, dendariekikoa lehenetsiz (euskarazko produktuetan %5eko deskontua); 2021ean beste horrenbeste egin dugu eta 2022an ere berdin ekingo diogu.

Egitasmo orokor honekin lotura zuten azpi-egitasmo batzuk baztertu beharrean aurkitu izan gara 2020an eta 2021ean, egoera lehengoratzan ez den bitartean:

- **“Gurasoentzako ikastaro bereziak”** deituriko azpi-egitasmoa. Aurtengoan jarduera hori “euskara ikasteko diru-laguntzekin” lotzea erabaki dugu.
- **Familien arteko lehiaketa erraldoia** (3-6 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei begirakoa). 2012 eta 2013 urteetan diru faltagatik baztertu eta, gurasoen aldetik izan ziren kexa eta eskakizunak bitarteko, 2014an berreskuratu zen azpiegitasmoa, lehentasuna eman zitzaiolako; 2019an eutsi zitzaion eta 2020an bertan behera geratu zen.

2.- HELBURUAK

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” deituriko proiektu hau, 2014-2018 epean indarrean egon den Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) aintzat harturiko neurri eta ekintzekin bat zetorren.

Orain, 2019-2022 eperako ESEP-en eutsi egiten zaio dinamika horri eta 2022ko Kudeaketa Planean aintzat hartuta daude zenbait ekintza, familia esparruan euskararen normalizazioa lantzea helburu duen egitasmo honetan txertatuak. Langai familia dugun arren, helburu estrategiko (1.- transmisioa, 2.- erabilera, 4.- zehar-lerroak) eta esparru desberdinak landu nahi dira (familia, aisia eta kirola, sentsibilizazioa eta motibazioa).

Hona hemen 2020ko Kudeaketa Planean jasota dauden helburu, neurri eta ekintzak, egitasmo orokor honekin lotuak:

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa **Esparrua / Neurria / Ekintza**

1. Familia bidezko transmisioa:

1.1.4.1.- Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak bidali: ipuinak, kantuak, materiala – Ku-Ku, adur zapiak, poltsak, argitalpenak,...-).

1.1.4.2.- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidalitako gutuna,...

1.1.4.3.- Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendaren egitasmoan parte hartu eta irakaskuntza zentroei eskaini.

1.1.4.3.- HAZI HEZI aldizkariaren harpidetza eskaini matrikulatu berriak diren ikasleen gurasoei.

3- JARDUERAK

Egitasmo orokor honen baitan garatuko diren jarduerak honako hauek dira:

1.- Jaioberrien gurasoei materiala banatzea

Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainetan parte hartuko dugu (eman giltza, emαιοzu bizia, materiala, argitalpenak), aurreko urteetan jasotako materiala osatzeko (KU-KU argitalpena -abesti bilduma-, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, adur zapiak, pegatinak, askari poltsak).



2.- HAZI HEZI aldizkariaren doako harpidetza

2016rako gauza berri bat txertatu genuen esparru honetan: HIK HASI erakundearen Hazi Hezi aldizkariaren doako harpidetza, lehenengoz matrikulatzen diren haurren guraso euskaldunei eskainia. Hiruhilabetekaria da, gurasoberrientzat gai interesgarriak lantzen dituen aldizkari bakarra. Hona hemen urte bakoitzeko eskaera egin duten gurasoen kopurua:

3.- Eskola Agenda

Sarrera idatzian esan bezala, 2019an eutsi genion Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendari eta jarduera hori atal honetan txertatzea egokitzen jo genuen, agenda horren bidez haurrak gurasoekin dituzten harremanak lantzen direlako eta eskolaren dinamika jarraitzeko tresna delako (hezkuntza munduko agente guztiak harremanetan jartzen ditu, ikasleak, irakasleak eta gurasoak).

3.1.- JARDUERAK GARATZEKO OINARRIAK

- “Jaioberrien gurasoei materiala banatzea.- Soberan dagoen materiala banatuko zaie: gutuna, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, oparia, ku-ku liburuxka, HAZI HEZI aldizkariaren ale berezia.
- Anbulatorioarekin elkarlana, han ere jaioberrien gurasoei materiala banatzeko (eman giltza, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka).
- HIK HASI erakundearekin eta ikastetxeekin elkarlana HAZI HEZI aldizkariaren doako harpidetzak bideratzeko matrikula kanpainarekin batera.
- Alkarbideren bitartez 891 eskola agenda eskuratuko dira, LHko azken zikloko ikasleentzat. Hiru zentrok adierazi dute interesa horretan parte hartzeko (Barrutia ikastetxea, San Fidel Ikastola eta Seber Altube ikastola) eta urtetik urtera areagotuz joan da agenda kopurua.

3.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:

- Euskara Zerbitzua.
- Udal Eskola Kontseilua eta guraso elkarteak.
- Udaleko Erregistro eta Estatistika saila (jaioberrien gurasoei materiala)
- Anbulatorioko pediatria eta emaginaren zerbitzuak.
- HIK HASI erakundeko arduradunak.
- Alkarbide (Eskola Agenda)

- Baliabideak:

- Diru iturriak Euskara Zerbitzuarenak.
- Giza baliabideak: Euskara Zerbitzuarenak (HNT1), anbulatoriokoak (pediatria eta ginekologiako erizainak -2- eta emagina), eskoletako euskara arduradunak

(gurasoei begirako kanpaina bideratzeko), Udal Erregistroko arduraduna; HIZ HASI erakundeko arduradunak; Alkarbideko teknikariak.

- Erabiliko diren euskarriak, materiala:
 - Jaioberrien gurasoentzat : gutuna, Ku-Ku” haur kanta, adur zapia, poltsak, Ume elebidunen gurasoentzako aholkuen liburuxka, Emaiozu bizia liburuxka eta DVDa.
 - HAZI HEZI hiruhilabetekaria, doako harpidetza egiteko borondatea eta gogoia agertzen duten gurasoentzat.

3.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea :

- 0-1 urte bitarteko umeen gurasoak (400), ondorengoetaratze kanpainaren materiala jasoko luketenak, eta anbulatorioaren bitartez eraginpean izango direnak.
- 0-2 urte bitarteko gurasoei eskainiko zaie HAZI HEZI aldizkariaren harpidetza (200 bat)

URTEAK	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Guraso kopuruak	57	+19	+21	+24	+23	+24

- Euskarazko produktuen katalogoaren berri emateko 0-12 urte bitarteko umeen gurasoei banatuko zaie informazioa (2.500 inguru).

Adierazle nagusiak:

- Sentsibilizazio kanpaina dugu eta etxe barrurako eragina duen jakitea ezinezkoa zaigu une berean. Ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntzari buruzko neurketen emaitzei jarraipena egiten diegu. Datu objektiboa da jaioberrien guraso guztiei banatzen zaiela materiala (2021ean 140 bat izan dira).
- Anbulatorioarekin sakondu beharrekoak ez dakigu nolako eragina izango duen, finkatzeke daude konpromisoak eta.
- HAZI HEZI aldizkariaren harpidetza bi urterakoa da. Beraz, pilatu egiten dira aurreko ikasturtekoak eta ikasturte berrikoak. Guztira ikasturteko 50 bat dira eta horrek esan nahi du egindako eskaintzari %25ak eusten diola.
- Eskola agendaren arrakasta zentro bakoitzaren baloraziotik etorriko zaigu eta horrek eragingo du eskola agenda zentro guztietara hedatzea, baina momentuz esan dezakegu bostetik hiru zentrok hartzen dutela parte eta beste biak ez direla partaide euren kabuz lantzen dutelako agendarena.

Etxean euskaraz egiten dutenen portzentajea (iturria: Eustat)

UDALERRIA	1991	1996	2001	2006	2011	Aldea
Gernika-Lumo	% 41,07 6.448 hizt. 15.697 bizt.	% 41,00 6.331 hizt. 15.439 bizt.	% 41,79 6.379 hizt. 15.264 bizt.	% 41,45 6.625 hizt. 15.981 bizt.	% 40,89 6.361 15.558	-0,18
Bermeo	% 55,74 9.991 hizt. 17.923 bizt.	% 55,89 9.601 hizt. 17.176 bizt.	% 53,56 9.072 hizt. 16.938 bizt.	% 49,24 8.267 hizt. 16.789 bizt.	% 45,21	-10,53
Mungia	% 34,00 4.046 hizt. 11.900 bizt.	% 31,57 4.044 hizt. 12.807 bizt.	% 27,64 3.817 hizt. 13.807 bizt.	% 22,59 3.451 hizt. 15.275 bizt.	% 22,75	-11,41
EUSK. AUT. ELK.	% 13,79 290.329 hizt. 2.104.041 bizt.	% 13,63 286.092 hizt. 2.098.055	% 13,64 284.084 hizt. 2.082.587 bizt.	% 13,02 277.277 hizt. 2.129.339 bizt.	% 14,08	+0,29

Inguruko herrietan kontrako joera izan bada, Gernika-Lumon etxe barruan euskararekiko fideltasuna mantendu egin da, EAEen dagoen joerari eutsiz.

Ama-hizkuntza euskara (%)

UDALERRIA	1986	1991	1996	2001	2006	2011	Aldea
Gernika-Lumo	60,8	60,6	60,7	59,80	55,42	53,50	-7,30
Bermeo	71,3	71,5	70,2	67,00	62,60	59,91	-11,19
Mungia	56,8	54,7	48,9	44,14	38,82	35,85	-20,95
EUSK. AUT. ELK.		20,6	20,6	18,80	19,30	19,27	-1,33

Iturria: Eustat

Hemen beheranzko bidea dugu orokorrean, apurka-apurka baina beherantza. Hizkuntza-gaitasunaren kasuan gertatu moduan, 2001-2006 urte bitarteko inflexioa ere nabarmentzen da hemen ere, beherakada handiagoa da beste urteetan baino eta.

Ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea jaitsi egin da 1986-2011 urte bitartean Gernika-Lumon (% 7,30 gutxiago).


Beldur gara ez ote duen **familiak ikastetxea hartuko hizkuntza ohiturak finkatzeko erreferente bakartzat**. Beharrezko da, hargatik, familietara beste bide batzuetatik ere ailegatzea.

Anbulatorioko pediatria zerbitzukoek egindako datu-bilketa 2012ko ekainean

Lagina	468 harreman gurasoekin eta 311 harreman haurrekin (e)	
Gurasoak Gernika-Lumokoak	%85	Gernika-Lumokoak baino ingurukoak esan beharko, anbulatorioak es
Gurasoak atzerritarrak	%15	Jaiotza tasaren igoera etorri berrien familiei diegu zor eta etorri berri pediatriako zerbitzuetan %15a dira.
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz	%71	Pediatria zerbitzuan helduek ere gehiago erabiltzen dute euskara Bertako langileek euskaraz egin eta euren "prestigioa"-k erakarrita? Datu honek, udalerriko euskaldunen portzentajea gaintitu egiten du nabarmen (%43,30)
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz hala-hola	%4-5	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina direlako. Elebidun hartzaile direnak sar ditzakegu hemen.
Pediatriakoekin gurasoek erdaraz	%25	Guraso etorri berriak (%15) eta bertokoen %10a pilatzen dira hemen.
Pediatriakoekin umeek euskaraz	%85	Umeen erabilera ikusita (%85), ondorioa: kaleko umeen erabilera ere diren guraso/tutore euskaldunen eta euskaraz aritu izan diren umeen adierazten digu ume euskaldunen euskararekiko atxikimendua %100
Pediatriakoekin umeek euskaraz hala hola	%6	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina direlako. Portzentaje hau guraso atzerritarrak dituzten umeen m integrazioa nolabait gauzatzen delako seinale.
Pediatriakoekin umeek erdaraz	%9	Beraz, bertoko umeek guztiek dihardute euskaraz pediatriakoekin; g izanik, esan nahi du beraietatik heren batek ere euskarari eusten diola




Beste adierazle batzuk:



Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2016ko kale neurketa)

- **Belaunaldi gazteenak dira, 1989-2016 urte bitartean erabileran hazkunderik altuena bizi izan dutenak:** gazteen erabilera 45 puntu areagotu da, eta haurrek, berriz, 27,2 puntu gora egin dute erabileran. **Baina kezkatzekoa da haurren erabilerak behera** egin duela 2006tik 2016ra ia 9 puntu, beste adin taldeena mantendu denean. Gazteena ere mantendu egiten da.
- **Helduen erabilera,** oro har, **4 puntu igo** da aztertutako hogeita zazpi urteko epean; 1989tik 2001era bilakaera positiboa (8 puntu gora) eta 2001etik 2016ra behera 4 puntu.
- **Adinekoetan,** berriz, **gutxika beheranzko** joera dago erabileran: 18 puntu. Beherakada horrek etena izan du 2011-2016 urte bitartean.

HAURREN PRESENTZIAREN ERAGINA ERABILERAN



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

- Dakusagunez, **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean** (bai erdiguneko kaleetan zein ikastetxeetan. Ikastetxeetan haurrak eta nagusiak nahasian ari direnean %71,4ra igotzen da erabilera).
- Egindako neurketa desberdinetan (2001, 2006, 2011, 2016) antzeko joera ikusi da, baina gauza pare bat argitu behar:

1.- **Haurrak bakarrik daudeneko datuetan kezkatzekoa da azken 5 urteetan izan den beherakada nabarmena**, ikastetxetik kalera dagoen alde handia.

2.- **Nagusiak haurrik barik daudeneko datuetan jaitsiera izan da** eta haurrak eta nagusiak nahasturik daudenekoetan ere bai. Argitu behar baita ere, haurren presentzia soilak ez duela eragiten helduen/adinekoen erabileran, elkarriketan parte hartzeak baino.

4.- KRONOGRAMA (2021)

"Gurasoei materiala"	Urt.	Ots.	Mar	Api.	Maia	Ek.	Uzt	Ir.	Ur.	Az	Ab
Materiala sailkatu											
Materiala eskatu Alkarbideri											
Udal Erregistroa (banaketa-jarraip.)											
Anbulatorioa (banaketa/jarraip.)											
Hazi Hezi aldizkariaren harp.											
Gurasoei HASI HEZI eskaini								2020	2020		
Gurasoen harpidetza eskaerak batu										2020	2020
Gurasoei HAZI HEZi bidali											
Eskola Agenda											
Eskola agenda prestatu (Alkarbide...elkarlana)											
Eskola agenda banatu											
Jarraipena (eragileen batzarrak)											
Euskeraz oparitu											
Dendariekin batzarra (2021eko balorazioa; hausnarketa)											
Dendariekin batzarra (2022ko kanpaina prestatzeko)											
Orri bereziaren banaketa / sare sozialetan zabalkundea											

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

Gastuak

Jaioberrien gurasoentzako materiala (Alkarbide)	2.500
HASI HEZI aldizkariaren harpidetza (50)	800
Eskola Agenda (891 ale)	3.800
Euskarazko produktuen katalogoaren zabalkundea	400
GUZTIRA	7.500

Gernika-Lumon, 2022ko urtarrilean.

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Zinegotzia




Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria



I. Eranskina

Jaioberrien gurasoei materiala





II. Eranskina

HAZI HEZI ALDIZKARIAREN HARPIDETZARAKO GUTUNA/FITXA

Kaixo, guraso:

Haurrak eta gazteak izan dira, eta dira, gizarte guztietako etorkizuna, eta euren heziketa izan beharko leuke guztien ardura nagusienetakoa.

Horrekin lotuta, familiak dira haurrek ezagutzen daberen lehenengo sare soziala, eta etxeak lehenengo hezitokiak. Gero datoz Eskolak, etxekoaren gehigarri gisa haurraren bizitzan, eta, horren ostean, aisialdia eta komunitatea ere, apurka apurka, indarra hartzen joaten dira. Hargatik, familia da abiapuntua eta oinarri sendoa.

Beraz, etxeko haziera eta heziketa lanetan, ahal dogun neurrian behintzat, laguntza eskaini eta zure alboan egon nahiko geunke. Eta, eskolatze-sasoi honetan, HAZI HEZI aldizkariak lagungarri izan gura dau.

Gernika-Lumoko UDALAK Hazi Hezi aldizkariaren urte beteko harpidetza (4 zenbaki) eskaini nahi deutsu, doan. Hartu nahi badozu, bete egizuz behealdean agertzen diren datuak eta zeure zentroko zuzendaritzan entregatu.

Zorionak familia!

.....

Eskaera honen bidez, GERNIKA-LUMOKO UDALA kargu egiten da HAZI HEZI aldizkaria urte betez doan eskaintzeaz.

Izena..... Abizenak

Helbidea Herria

Posta kodea Herrialdea

Telefonia Emaila

III. Eranskina



Zorione Irakaslea, Planetaren lagunak

–Egun on, nire umeak!

–Egun ooon!

–Gaur Lur planetaren osasunaz hitz egingo dugu. Lur planetan bizi gara gu, baina ez bakarrik pertsonak. Nor gehiago bizi da Lurrean?

Ikasleak erantzuten hasi dira: “Animaliak”, “landareak”, “ibaiak”, “mendiak”, “itsasoak”...

–Halaxe da: naturan dagoen guztiak du lekua gure planetan, gure etxebizitza delako. Zuek maite duzue zuen etxea?

Denak hasi dira kontatzen nolakoak diren euren etxeak, zenbat gela dituen, zein den bere txoko kuttuna...

–Baina planeta gaixo dago, gure erruz. Gizakion jokabideak hainbat kalte ekartzen dizkio Lurrari: itsasoak kutsatu ditugu, animalia-espezie batzuk galzorian utzi, klima aldatzen ari da eta ez dakigu horrek ze ondorio izango dituen...

Ikasle guztiak kezkatu dira.

–Eta guk zer egin dezakegu? –galdetu dute Naia eta Uxue ahizpa bikiek.


–Ba, ezingo ditugu Lurraren min guztiak sendatu, baina gauza txiki asko egin dezakegu, Planetari lagunduko diotenak.

–Guk ere lagundu nahi dugu –esan du Amadouk.



-Ba, ikasturte honetako lan bat izango da bakoitzak proposatzea ekintza bat, berak egin duena eta denok egin dezakeguna, ingurumenaren onerako.

-Eta Planetaren Lagunak izango gara! -esan dute ikasleek, pozez.



SUSTATZAILEAK:



Arrankudiaga-Zolloko
Udala
Euskara Zerbitzua
www.rrankudiaga.org



Arriagorriagako Udala
Euskara Zerbitzua
www.arriagorriaga.eus



Basauri Udala
Euskara Zerbitzua
www.basauri.net



Bermeoko Udala
Euskara Salla
www.bermeo-euskaraz.eus



Busturiko Udala
Euskara Zerbitzua
www.busturia.org



Elorriko Udala
Euskara Zerbitzua
www.elorrio.eus



Erandio Udala
Euskara Zerbitzua
www.erandio.eus



Etxebarri Udala
Euskara Zerbitzua
www.etxebarri.eus



Etxebarriako Udala
Euskara Zerbitzua
www.etxebarria.biz



Gatikako Udala
Euskara Zerbitzua
www.gatika.net



Gernika-Lumoko Udala
Euskara Zerbitzua
www.gernika-lumo.eus



Laukizko Udala
Euskara Zerbitzua
www.laukiz.eus



Mundakako Udala
Euskara Zerbitzua
www.mundaka.org



MUNITIBAR
ARBATZE GERRAIKITZ
UDALA
Euskara Zerbitzua
www.munitibar.org



Muskiz Udala
Euskara Zerbitzua
www.muskiz.org



Muxikako Udala
Euskara Zerbitzua
www.muxikakoudala.eus



Orozkoko Udala
Euskara Zerbitzua
www.ozkoudala.com



Otxandio Udala
Euskara Zerbitzua
www.otxandio.eus



Ugao-Miraballesko Udala
Euskara Zerbitzua
www.ugao-miraballes.eus



Zierbenako Udala
Euskara Zerbitzua
www.zierbena.net

BABESLEAK:



Testuak: Alaine Agirre • Ilustrazioak: Leire Urbeltz • Diseinua: Biko komunikazioa

IV. Eranskina: EPK kanpainarako euskarria



HEMEN
SALGAI

euskarazko
produktuak

%5eko DESKONTUA
euskarazko produktu guztietan
Abenduaren 1etik 31ra

BEREZI Juan Calzada, 14	AMILOTX San Juan, 25	OBABA Iparragirre 22
ANA OPARIAK Carlos Gangoit, 6	GAUBEKA Don Tello, 3	ZARRA Barrenkalea, 4

www.katalogoa.org
info@katalogoa.org

musika informatika filmak aldizkariak
komikiak liburuak jostailu eta jokoak
gurasoentzako materiala





